

aurrerabiderik ez

1979ko euskal kultur mogimendua-
ren balantzea egiteko, goizegi da.
Datuak oro eskutan beharko nituz-
ke, eta gertakarietatik urruntasun
handiagoa nahi nuke. Gainera, gerta-
tuaren zerrendatze edo aipatze soí-
la ez da zuzenena, egiazko lan sako-
na isila eta azalera inoiz gutitan
azaltzen dena izaten baita sarritan.


kulturaren dago hauzia

Euskal kulturaren arazoa aipatzen
dugun bakoitzean, «euskal» delakoari
begiratzen diogu soilki. Bada hor
problemarik, noski, beherago ikusi-
ko dugunez. Baina bada besterik ere.

Gure ahulezien iturburua ez dago
«euskal» kulturaren eskasian baka-
rrik, baizik eta «kulturaren» eska-
sian ere. Geure burua kontsolatu
nahian Penintsulako beste inon bai-
no gehiago irakurtzen dela eta hola-
koak botatzen ditugu. Baina, egia

esan, konparaziorik ez dugu behar
ez gaudela oso goi antzemateko.
Aski dugu geure ingurune hurbilera
begiratu bat ematea, zalantza guz-
tiak ezabatzeko. Oso urri ditugu kul-
turak, bizitzeko, behar duen giroa,
ingurunea, azpiegitura, sare institu-
zionala eta enparaua. Kultur bizitza-
ren termometrotzat liburutegiak har-
bagenitza, kasurako, ezin eskasagoa
dela gure egoera konturatu gina-
teke. Zerbait herritan nola dauden
gure bibliotekak!: apaindu gabeko
lokalak, liburu guti eta ez beharrez-
koenak, euskal libururik ia batere
ez, jende guti eta mogimendu gu-
tiago.

Kultur-ekintzak, gehiegi ez baino,
egin egiten dira. Fruiturik, ordea?
Asko jaitsi da asistentzia azken ur-
teotan. Antolatatu ohi den kultur-eki-
naldi asko bost katurentzat (betiko-
entzat) izan ohi da. Aurten ere Ama-




1979ko literatur emaitzen artean,
Hartzabalen poesia liburu
originala.

ran, Pasaian, Grosen, Andoainan,
Zarautzen eta beste leku askotan
egin dara kultur ekinaldiak, baina
ez beti jendearen aldetiko arrakasta
ikaragarri. Horren eskasa al da
kulturaren «poder de convocatoria»
delakoa? Antolatzaile bat baino
gehiago ikusi dut jadanik etsita.


Batzuren eritzian, onuragarri da
fenomenu hau, egiazko egoera ho-
beki azaltzen duelako. Orain artean,
maiz, faltsukeria bizi izan gara po-
litika eta kultura nahastuz, diote.
Argitze-prozesu batetan geundeke
orain, geure kulturari (edo gabezia-
ri) tamaina hartzen.

euskal kultura euskaraz

Euskal kultura euskaraz!: hona
1960 inguruko kultur belaunaldiaren
errebindikapen nagusia. Orain ba-
tzuentzat oihu, beste batzuentzat
konbikzio, eta beste batzuentzat,
utopia; denentzat nekea praxira era-
mateko orduan. Dena den, errebini-
dikapen honek ez du gaurkotasan
fitsik ere galdu, alderantziz baizik.



Udako Euskal Unibertsitatea zazpigarren urtez.



Eman dezagun Euskal Herria euskalduntzea seriotan hartzen dela, bide eta ondorio guztiekin. «Frente de rechazo»rik ez ote da sortuko? Aurtan, lerro tartean edo ahopean, han edo hemen agertu izan da joera arriskutsurik. Edozein modutan ere, etorkizuna esperantzak ikusteko, euskara ikastearen axola gutiegi nabarmentzen da bazterretan. Jendea ikasten ari da, omen, baina epelegi.

Hala ere, euskararen normalizapen bidean eman da urratsik 1979-an. Uste dut Karlos Santamaria batek eraman duen bideak irakaskuntzaren normalizapenean fruiturik emango duela. Gotzon Olarte batek, bere aldetik, seriotan hartu du alfabetatze-euskalduntzearen arazoketa: izan ere, Euskal Herria alfabetatzea eta euskalduntzea nahi badugu, orain arteko mogimenduaren egiturak eta kapazitatea ez dira aski; ofizialtasunak, indar guztiz, jokuan sartu behar du.

1979koak dira, baita, beste bi urrats, aspalditik emanak behar zirenak, hots, kale-izenen euskarapena eta udalen euskal izen jatorra.

itzal-argiak

Urteko aipamen bat edo beste ere egin beharko dugu zehazkiago. Itza-

lak eta argiak, denetik ikusten dugu gure egutegi partikular honetan.

Urteari begiratu bat ematean ezin, ba, gogoratu gabe utzi gure hilak: Jon Oñatibia, kultur-animatzaile aspergabea; Mikel Zarate, literaturgile, gramatikari, eta zer ez?; Jokin Zaitegi, gerraoste hurbileko euskararen errebindikatzaile amorratua; eta Iruriko Etxahun pastoral-egile emankorra.

Hauk joan zaizkigu, bai; sortuko dira berriak, esan beharko dugu, noiz eta nola argiegi ikusten ez badugu ere. Euskal kultura hezurramitzaile, idazle berriak behar ditugu. Guk nahi adina ez badira ere, ari dira sortzen, eta poztekoa da: literaturgileak dira berriak, nagusiki; literaturaren autonomiaren aldeko borrokatzaileak, gehienak.

Amaitu aurretik ikus dezagun zenbait kultur-eremu. Has gaitezen liburugintzatik. Liburugintzaren errepasoak luzeegi joko liguke. Bi hitz, hala ere. Kreaziozko literaturan, aipagarrienen artean, J. M. Lekuonaren «Ilargiaren eskolan», A. Urretabizkaiaren «Zergatik Panpox», J. A. Arrietaren «Abuztuaren 15eko bazkalondoan» eta I. Zabaletaren «Bertsuaren ezpata» ikusiko nituzke. Az-

terketa mailan, aldiz, seinalatzeak dira Zelaletaren literatur azterketa biak Joxe Azurmendiren lau saioak, J. M. Arrietaren «Gizartea gaur», eta Txillardegiren eta P. Altunaren hizkuntz-lanak.

Liburutan baino gorabehera gehiago izan da aldizkaritan: «Euskadi Sioux» hil bada ere, «Ere» astekaria sortu da, eta «Punto y Hora» berpiztu. «Común» hiruhilabetekaria ere kaleratu da, zenbait artikulu euskaraz dituela. «Muga» ere hiruhilabetekaria bezala atera da, erdara hutsean. Eremu mugatuago batetan, «Urrats»ek lehen zenbakia argitaratu du, eta alfabetatzen ari direnentzat «Ikasleen kazeta» eta «Urraspide» atera ditu Koordinakundeak.

Aldizkari gehienotan euskarak ez du leku handi handirik, oso guti baizik. Euskarazko aldizkariak, bestalde, ez dute gorakada nabarmenik izan. Betiko martxan jarraitzen dute «Herria»k, «Zeruko Argia»k eta «Jakin»ek; motelago dabil «Anaitasuna» eta are motelago «Zehatz».

Zinemak, aurtan, gure artean, sekula baino protagonismo gehiago izan duela iruditzen zait, istilu eta gertakari batzu izan direla medio, hala nola, Donostiako XXVIII Zinemaldia, Zestuako Topaketak, Ikuskak filma llaburren eta dokumentalaren emanaldiak. Bai, baina, honatx itzala: artean ez dugu erdietsi zinearen euskal industriarik.

1979ko itzalen artean sartu behar, baita, gure irratien eta telebistaren gorabeherak. Telebista ez da euskal kulturaz enteratzen. Eta dugun irratia euskaltzale bakarria (Herri Irratia) Madrili lotzen diote azken orduan. Autonomiaren ulerkerak bitxia benetan!

Instituzioen inizatibean artean bi bakarrik aipatuko ditut, Euskaltzaindiarenak bi-biak: gramatika finkatzeko Euskaltzaindiaren IX Biltzarra Arrasaten, eta Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa.

Oro har, zer esan? Bada atzera egin dugula esaten duenik. Ez naiz ausartzen ni horrenbeste baieztara. Baina, egia esan, ez dut ikusten aurrerapidean urrats erabakitzaileak eman dugunik. Euskararen eta euskal kulturaren arazoa, politikoez eta bestelakoek serioagotan hartzen ez badute, jai dugu.

JOAN MARI TORREALDAY



Zineak izan du bere presentzia aurtan. Argazkian, IKUSKAKO ekipoa Gernikan filmatzen.